



2.3 FUNTSEZKO ELKARTEAK

Argi dago beste bazkide- edo hornitzaile-sareekin elkartzea oso lagungarria eta beharrezkoa izan daitekeela gure proiektua aurrera eramateko. Hainbat elkarterekin harremanak ezinbestekoa izango da, gure bezeroei ahalik eta arreta hoberena emateko.

Zuhaitz-etxeak egiteko lehenik eta behin diseinatzaile batekin etxeen diseinua egiteko jarriko gara harremanetan, baina disenatzaileari laguntza eskatuz gain herritarrei ideiak eskatuko dizkiegu laguntza modura, ondoren, arotzekin etxeeko egur motak eta... etxeak nola egin eta beraiekin batera egiteko.

Gure zuhaitz-etxeetara etorri behar jendea naturarekin gozatzera eta lasai egotera datoztenez eta esan dugun bezala, gosariak eta afariak emango dituztenez ostatuan, produktuak inguruko baserrietatik eta herrietatik hartuko ditugu, haien ekonomia hobetzeko eta km 0ko produktuen merkatua indartzeko.

Gazta Zaldibiko Mozori erosiko diogu eta horrez gain, publizitatea egingo diogu gure enpresaz gain bezeroak lortu ahal izateko, bestalde, ogia Ordiziko Errotaundi okindegian bertan egina delak, barazkiak Gaintzako baratzetatik erosiko diegu eta jendenego gutxi badago, ondoko herri txikietatik ere lortu ditzazkegu Zaldibia, Arama... eta haragia olano harakinari hartuko diogu, izan ere, haragia oso famatua da eta gertutasun handia dugu, horrez gain, beste harakin batek eskaintzarenbat egin ezker eta gure baldintzak betetzen baditu, hau da, beraiek kudeatzen badute haragi osoa eta gertutasuna edo konfiantza ematen badigute negoziatu dezakegu

Laburbilduz, argi dago enpresa hauekin kontaktatzea oso onuragarria izango dela gure enpresarako baliabideak eskartzeko, negozio eredua optimitzeko, arriskua murrizteko eta batez ere, bezeroak erakartzeko.